

Norbanakoen izen-ematea

Prozesuaren azalpena

Dokumentu honen bidez, norbanakoek Euskaraldian izena emateko edo parte-hartzea berresteko egin beharrekoa azaltzen da, pausoz pauso, dudarik eduki ez dezaten.

Izena eman edo parte-hartzea berretsi.

- **Norbanakoen izen-ematea irailaren 28an zabalduko da herritar guzti-guztientzat** (ariguneetako kideek zabalik izan dute eta askok prozesua osatu dute, entitateen URL propioen zein generikoaren bidez).
- Aurten, norbanakoek **bi aukera topatuko dituzte izena ematerakoan**:
 - Aurrez Euskaraldian parte hartu dutenek **parte hartzea berretsi** (aurtengo edizioan ere parte hartuko dutela baieztatu)
 - Inoiz parte hartu EZ dutenak: **izena eman** (galdetegi labur bat beteta)

Nola eman izena edo parte-hartzea berretsi?

- Euskaraldian izena eman ahal izateko **lotura bat helaraziko die entitateak ariguneetako kideei**.
- Entitate barnean zabalduko den loturan horretan klik eginda irudiko orrialdera helduko gara. Bertan, egin beharreko **lehenengo gauza, gure helbide elektronikoa sartzea** izango da.



EUSKARALDIA

ONGIETORRI EUSKARALDIRA!

Euskaraldiaren 3. edizioan parte hartzeko hiru aukera dituzu:

- Inoiz parte hartu ez baduzu, izena eman
- Aurrez parte hartu baduzu, parte-hartzea berretsi
- Aurten ez duzula parte hartuko adierazi

Aurrera egin eta zuretzako egokia den gunera zuzentzeko, zure helbide elektronikoa behar dugu lehendabizi:

ZURE HELBIDE ELEKTRONIKOA IDATZI

Posta elektronikoa **PORTE HARTU**

Helbidea sartutakoan zer?

- **Inoiz parte hartu ez baduzu** (edo parte-hartzeko erabili zenuen e-posta bera ez baduzu jartzen) **galdetegi motz bat betetzera** bideratuko zaitu sistemak.
- **Aurreko edizioen baten parte hartu baduzu** (2018an zein 20220), **aurten ere parte hartuko duzula baieztatzeko pantailara** eramango zaitu.
- Pantaila horretan **'2022ko Euskaraldian parte hartu nahi dut'** klikatuta, zure parte-hartzea berretsita geratuko da (bigarren edizioan emandako datuekin).



PARTE HARTU

2022ko Euskaraldian parte hartu nahi dut

Aurten ez dut parte hartuko

BIDALI

(Bigarren pantaila hau, rola aukeratzekoa irailaren 28tik aurrera bakarrik agertuko zaie)

2022ko Euskaraldian parte hartu nahi dut

Aukeratu zure rola irudiaren gainean klik eginda *



BELARRIPREST

Aldiro erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri euskaraz hitz egitea nahi dut, eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.



AHOBIZI


Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarriketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean. Oakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da.

Eta datuak aldatu nahi badituz?

- Izena ematean zein datuak berrestean, pantailan bertan zein emandako helbide elektronikoan, mezu bat jasoko duzu izen-ematea/berrestea ondo egin duzula adieraziz.
- Mezu horietan zure datuetara sartu ahal izateko ze pauso eman behar dituzun ere azaltzen da.

Datuak ikusteko/aldatzeko prozesua

- Datuetara sartzeko, **erabiltzailea sortu behar** da, ezinbestean.
- Erabiltzailea sortzeko, pantailan zein e-postan jasotako **mezuan topatuko duzuen lotura erabili** behar da.



- Loturan klik egin ondoren, datuetara sartzen ahalegintzen zaren **lehen aldia bada, pasahitza berreskuratzeko aukera baliatu** beharko duzu.

Zure profilean lehenengoz sartzeraz bazoaz, pasahitza eskuratu beharko duzu lehendabizi, bertan duzun pasahitza sortu/berreskuratu aukera erabilita.



POSTA ELEKTRONIKOA

PASAHITZA

Gogora nazazu

Sartu

Pasahitza sortu/berreskuratu

Norbanakoen izen-emate prozesua. Azalpena.

- Behin pasahitza lortuta norbere datuetara sartu eta nahi beste aldaketa egin daitezke.
- Izena eman ondoren, helbide elektroniko berarekin berriro izena ematen saiatuz gero, erabiltzailea sortzeko aukera eskainiko dizu sistemak zuzenean.



PARTE HARTU

Helbide elektroniko honekin eman duzu izena jada. Datuetan aldaketaren bat egin nahi izanez gero, sartu zure profilean [HEMEN](#).

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

info@euskaraldia.eus